

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzua pertsona mota guztiei eskainiko diegu; bezero mota ezberdinak izango ditugu:

- Pertsona nagusiak eta mugikortasun murriztua dutenak (gaixoak, elbarrituak...). Bezero mota hau ugaria izango dela uste dugu.
- Gaur egun etxeetan, ia denek egiten dute lan kanpoan eta ez dute denborarik izaten janaria prestatzeko. Bezero mota hau ere ugaria izango da.
- Lea-Artibai turismoko zona bat denez, udan denbora gehiago izateko jatekoa eginda erostea pentsatzen duten bezeroak ere izango ditugu.
- Lea-Artibai ingurukoak izango dira, momentuz gure bezeroak (Ondarru - Markina - Lekeitio); baino etorkizunean baliteke gure zerbitzua Gernika eta Durango aldera zabaltzea.

